

8. Funtsezko jarduerak

Gure negozio-ereduak funtziona dezan, hainbat funtsezko jarduera izango ditugu, hala nola, sarearen eta plataformaren jarduerak berrikustea, eta modu egokian funtziona dezan ziurtatzea, horrela aplikazioak modu egokian funtziona dezan.

Beste jarduera garrantzitsu bat bezero berriak lortzea eta jadanik ditugunak mantentzea izango da. Fidelizazioari importantzia handia ematen diegu.

Ekoizpena, bestalde, kanpo enpresa baten eskuetan utziko dugu. Ondorioz, gure enpresak ez ditu plakak, kableak eta sistema elektronikoa ekoiztuko, horrela denbora gehiago izango dugu merkatua aztertzeko eta gure enpresa bide egokitik gidatzeko.